

D MAILA



2025

SORALUZEKO XL. IDAZLAN LEHIAKETA



SORALUZEKO
UDALA

GALAXIAZ GALAXIA

D MAILA

1.saria

**NAIA RODRIGUEZ
ALONSO**

Bazen behin 15 urte zituen neskatila bat, Malen izena zena. Soraluze BHI ikastetxean ikasten zuen eta astronomia gustuko zuen. Malen ausarta, burugogorra, alaia eta amore ematen ez zuen neska bat zen. Bere ametsa astronauta bihurtzea zen, eta jendeak ez zuela lortuko esan arren, berak erantzuten zien ez zuela inoiz amore emango. Berak bazekien oso zaila zela bere ametsa egia bihurtzea, baina lehen aipatu dudan moduan, oso burugogorra zen, eta ez zuen inoiz amore ematen.

Egun batean, ikastetxera NASAn parte hartzen zuten langile batzuk joan ziren. Malenek langileak ikustean harrituta gelditu zen. Nola joan ahal ote ziren NASAko partaide batzuk Soraluze BHI ikastetxera? Bere ikasgelan sartzean, proiektu bat aurkeztera joan zirela azaldu zieten. Badirudi "astronauta juniors" izeneko proiektu bat martxan zegoela. Proiektuak astronauta izan nahi zuten gazteei ikastaro bat ematea zuen helburu. Proiektuan parte hartzeko. Idazlan bat idatzi behar zuten. Bertan, zergatik izan nahi zuten astronautak azaldu behar zuten.

Malenek garbi zuen aurkeztu egin behar zela, baina betidanik astronauta izatea izan nahi zuen arren, ez zekien nola adierazi besteei. Berak bazekien zergatik izan nahi zuen, baina zaila egiten zitzaion haren sentimenduak hitzetan adieraztea. Hala ere, aste batzuk igaro ondoren, idazlan bikaina idatzi zuen. Idazlana bukatzean, zerbait falta zitzaiola uste zuen. Orduan, bere emozioak hobeto adierazteko, bideo bat egitea erabaki zuen. Epea amaitzeko egun bat falta zenean entregatu zuen. Malenek bazekien oso zaila izango zela bera aukeratzea, baina, hala ere, harrotasunez entregatu zituen dokumentua eta bideoa.

NASA-ko langileak Malenen idazlana irakurtzean eta bideoa entzun eta ikustean, asko hunkitu ziren. Ez zuten ulertzen nola 15 urteko gazte batek hain ondo adierazi ahal zituen bere sentimenduak.

Malenekin erabat identifikatuta sentitu ziren, hauek gaztetan berdina sentitzen zutelako. Orduan, "astronauta juniors" proiektuko irabazleetako bat izatea erabaki zuten.

Epea amaitu eta bi aste geroago, irabazleak argitaratu zituzten. Malen gelan zegoen euskarako azterketa bat egiten, eta bat-batean, Zuzendaritzara bidali zuten. Zuzendariak sailkatutako bat zela esatean, Malen negarrez hasi zen. Oso harro zegoen eta gurasoei esatean asko poztu ziren.

Uda horretan abiatu zen NASArantz, Malen oso urduri zegoen, bere ametsa lortzeko gertuago zegoen eta. Bertan, zazpi aste igaro zituzten. Hori amaitzean, eguneroko bizitzara bueltatzeko unea iritsi zen. Egia da, tristura sentitzen zuela, baina horrez gain, oso pozik eta zorioneko sentitzen zen. Bere bizitzako zazpi aste interesgarrienak izan zirela esan zien lagunei.

Esperientzia hau izan ondoren, astronauta izateko ikasketak egitea erabaki zuen. Malenen gurasoek ez zuten oso serio hartu astronauta izateko kontu hori, hala ere, Maleni ez zitzaion inporta gurasoek zer esaten zioten. Berak ez zuen amore emango.

5 urtez lan gogorra egin ondoren, lortu zuen! NASAn hartu zuten! Gurasoek hori jakitean, oso harro sentitu ziren. Ez zuten espero Malenek hori lortzea. Hauek uste zuten, astronauta kontu horiek umeen gauzak zirela. Pentsatzen zuten ez zuela hori inoiz lortuko, baina dirudienez lortu zuen.

NASAn sartu ondoren, bidaia asko egin zituen. Martera bi aldiz joan zen eta astronauta bikaina bihurtu zen.

Geroztik, "astronauta juniors" proiektuak martxan jarraitzen du. Euskal Herrian ohitura bat bihurtu da, eta urtero egiten den lehiaketa bat da.

Maleni dagokionez, gaur egun, astronauta izaten jarraitzen du. 40 urte eta 2 seme-alaba ditu. Seme-alaba batek astronauta izan nahi du. Bere ama bezain garrantzitsua eta ausarta. Malen oso harro dago eta "astronauta juniors" proiektura animatzeko esaten dio. Berari proiektu horrek asko lagundu zion eta bere alabari ere lagundu diezaiokeela uste du. Gainera, astronauta izateaz gain, Malenek kurtsoak ematen ditu, astronauta izan nahi duten gazteei astronauta izatera animatzeko.

Azkenean Malenek elkarrizketa guztietan esaten duen bezala, "ametsak ez dira ezinezkoak, lan gogorra eginez lortzen diren helburuak baizik".

DEBA IBAIKO MUNSTROA

D MAILA

2.saria

IRATI UNAMUNO
FERNANDEZ

Bazen behin lagun talde bat Soraluze herrian, talde hartan bost ziren: Mikel, Maialen, Itsaso, Ander eta Markel, betidanik lagunak izandakoak. Beraien herritik pilotarekin jolasten, ezkutaketan eta beraien herriko ibaian biltzea gustuko zuen lagun taldeak.

Arratsalde batean beraiek sortutako txalupa txiki bat ibaian probatzea erabaki zuten herritik buelta bat emateko intentzioarekin. Anderri ez zitzaion oso ideia ona iruditu, bere ustetan txalupa txiki hartan ez zutelako nahikoa lekuri lagun taldeko bostak sartu ahal izateko.

Berdin-berdin sartu zen txalupan eta zuhaitz batetik hartutako adar pare bat harturik ibaian murgildu ziren. Maialen eta Mikel hasi ziren arraunean, biak arraunean trebeak ziren eta.

Halako batean, zubi horitik pasatzen zeudela, Maialenek makilatik tirakada bat antzeman zuen eta Itsasok igarrita ea zer gertatu zitzaion galdetu zion. Maialen oraindik izututa gertatutakoarengatik, azaltzen saiatu zen lagunak izutu gabe, baina esaldia bukatu aurretik oihuak hasiak zeuden.

Ezustean, Markelek arrain handi baten isatsa ikusi zuen gerturatzen eta bat-batean hagin handiko izaki berde bat agertu eta bost lagunak irentsi zituen.

Soraluzeko herritar guztiak beraien bila ibili ziren, baina ez zituzten topatu, bat-batean arrastorik utzi gabe desagertu ziren.

Urte bat beranduago beste lagun talde bat ibai ertzetik jolasten ari zela txalupa bat topatu zuten eta ibaian buelta bat ematea pentsatu zuten. Txalupari buelta erdi eman, zuhaitzeko arrama pare bat hartu eta ibaian murgildu ziren. Zubi horitik pasatzen ari zirela lagun taldeko batek tirakada bat antzeman eta txalupa gelditu zuten arrain baten isatsa ikusita zer zetorkien jakin gabe.

3 ASTE KABITIK KANPO

D MAILA

3.saria

JURDANA VICIOSA
GARITANO

"Pi-pi" alarma jo eta jo dabil goizeko 7:00etan, ama oihuka: "Maialen! Esnatu zaitez behingoz!". 10:00etan Eibarren egon behar naiz autobusa hartzeko Ingalaterrara noalako. Esperientzia berri bat biziko dut, bertako familia batera noa, hiru astez. Egia esan, ez nago oso urduri, pixka bat agian, baina ez da bakarrik noalako, baizik eta ez dakidalako ondo moldatuko naizen ingelesez hitz egiten. Azkenean, ohetik altxatzea lortu dut. Prestatu eta Eibarrerantz joan gara ama, aita, amama, Ane eta ni.

Autobusa hartzeko gelditu garen lekura heldutakoan, urduriago jarri naiz. "Eta ez banaiz familiarekin ondo konpontzen?", "Ez badidate ezer ulertzen?", "Familiak ez banau ondo zaintzen?"... Horrelako galderak etortzen hasi zaizkit burura. Bertan ikusten dut nire burua pertsona ezezagunez inguratuta, bakarrik, beldurtuta... Bat-batean, urrunera begiratu dut, eta aurpegi ezagun bat ikusi dut niganantz maleta eta motxila batekin. Berak ni ere ikusi nau eta lasterka hasi da.

-Maialen!

-Ixone! Nolatan zu hemen?- ni guztiz harrituta.

-Ba ematen dabenez, biok plan bera dakagu!

-Ai, eskerrak! Agobiatzen hasita nengoen bakarrik joango nintzalako! - Bai, ni be bai!

Urduria gutxitu egin zait Ixone nirekin zetorrela jakin dudanean. Familiaz agurtu naiz, baina oso gogorra egiten ari zait nire ahizpaz agurtzea. Niretzat nire ahizpa munduko pertsonarik garrantzitsuena da; arazo bat dudanean bera beti dagoelako hor, nire alboan. Gauero bideodeiak egingo ditugula zin egin diogu elkarri. Horrek asko lagunduko didala uste dut.

Azkenean, autobusera sartu naiz eta Bilboko aireporturantz joan gara. Behin aireportuan, hegazkina arazorik gabe hartu dugu. Hegazkinean bi ezezagunen erdian tokatu zaidanez, lo hartu dut eta esnatutakoan, Ingalaterran lurreratzen ari gara. Bertan, autobus pribatu batek jaso gaitu eta ikasle bakoitza bere herrian utzi gaitu, herri bakoitzeko monitore batekin.

Autobusetik jaitsi naiz, baina Ixone beste herri batean jarri dutela ohartu naiz. Ez zait asko inporta, azkenean, klaseak eta irteerak batera egingo ditugulako.

Gure begiraleak ondoan dagoen plazara eramán gaitu eta bertan daude familia guztiak. Bakoitzak etxera eramango duen ikaslearen izena dauka paper batean idatzita. Nire familiaren bila hasi naiz. Atzean daude. ezkutatuta bezala. Beraingana hurbildu naiz, baina ez naute gogo askorekin jaso. Auto batera joan gara eta beraien etxera goazela esan didate, besterik ez.

Etxea oso polita eta modernoa da. Espero nuena baino askoz handiagoa. Nire logela zein den esan didate eta nire gauzak bertan utzi ditut. Maleta desegiten pasa dut arratsalde osoa.

Egunak aurrera doaz, baina familiak ez dit kasu askorik egiten egia esan. Jada aste bat noa hemen eta familiaz aparte, primeran pasatzen nabil. Gaur gauean diskoteka dugu eta dena prestatuta utzi dut.

Diskotekan Ixonerekin elkartu naiz eta familiarekin gertatzen zaidanaren inguruan hitz egin dugu.

-Maialen, ez bazagoz gustura, berba ein beraiekin eta esan- Ixonek. Baina nire ikuspuntutik irtenbide hau ezinezkoa da.

-Erraza ematen dau, baina zuk ez dozu ikusten nola begiratzen nauten beraiekin berbetan nagoenean, Ixone.

Familiarekin hitz egingo dudala erabaki dut, baina orain diskotekan ondo pasatzeaz arduratuko naiz.

Atzo diskotekan ez nuen pentsatu gaur zer esango diedan, baina bazkalorduan irten zaidana esan diet.

Asteazken zehar aldaketa igarri dut eta askoz hobeto nabil.

Ohartu gabe azken aurreko eguna iritsi da. Bihar etxera bueltatuko naiz, beraz, maleta egin dut.

Familiaz agurtu naiz eta eskerrak eman dizkiet. Beraiek ere eskertu egin didate nuen arazoa beraiekin partekatu izanagatik. Honekin, kabitik kanpo hiru asteko esperientzia amaitu zait, eta orain, kabira bueltan noa.